

## Nola berrezarri smartphone bat fabrikako balioen arabera

Inori zure gailua eman aurretik, zure datu eta informazio guztia ezabatu beharko zenuke.

Horretarako, gailua fabrikako balioen arabera berrezartzea da onena, eta hori egitean, lehen aldiz piztu aurretik zuen egoera hartuko du telefonoak. Fabrikako balioak berrezartzean, telefonoko datu guztiak ezabatuko dituzu, bai eta deskargatu eta instalatu dituzun aplikazio guztiak ere. Beraz, ez da zure argazkirik, dokumenturik edo beste inoren eskuetara iristea nahiko ez zenukeen ezer geratuko telefonoan.

### Android gailuetan

1. Joan "Ezarpenak" > "Segurtasun kopia eta berrabiarazi" edo soilik "Segurtasun kopia"
  2. Aukeratu "Fabrikako berrezarpena"
  3. Sakatu "Berrabiarazi"
  4. Azkenik, sakatu "Ezabatu guztia" eta itxaron minutu batzuk bukatu arte. Hori da guztia!
- Gaztelaniaz*
1. Pantaila nagusian, sakatu MENU eta, ondoren, Ajustes > Privacidad
  2. Aukeratu "Restablecer datos de fábrica"
  2. Sakatu "Restablecer teléfono"
  4. Azkenik, sakatu aukeratu "Borrar todo"

### Iphone gailuetan

1. Joan "Ezarpenak" atalera eta aukeratu "Orokorra" fitxa.
  2. Aukera asko ikusiko dituzu baina honako hau aukeratu: Ezabatu informazio eta ezarpen guztiak.
  3. Sakatu aipatutakoan eta baieztatu iPhone-ko informazio guztia ezabatu nahi duzula.
  4. Minutu gutxiren buruan iPhone-a berreabiaraziko da eta fabrikatik atera berriaren itxura izango du.
- Gaztelaniaz*
1. Joan "Ajustes" atalera eta aukeratu "General" fitxa.
  2. Aukera asko ikusiko dituzu baina honako hau aukeratu: Borrar todo.
  3. Sakatu aipatutakoan eta baieztatu iPhone-ko informazio guztia ezabatu nahi duzula.
  4. Minutu gutxiren buruan iPhone-a berreabiaraziko da eta fabrikatik atera berriaren itxura izango du.

### Windows gailuetan

1. Aukeratu "Ezarpenak" eta joan behera. Aukeratu "Inguruan" ('About' tab) fitxa.
  2. Fitxa horren barruan aukeratu "berrezarri telefonoa".
  3. Baieztatu informazio guztia ezabatu nahi duzula.
  4. Minutu batzuen ondoren fabrikako balioen arabera ezarrita izango duzu telefonoa.
- Gaztelaniaz*
1. Aukeratu "Ajustes" eta joan behera. Aukeratu "Sobre..." ('About' tab) fitxa.
  2. Fitxa horren barruan aukeratu "Restablecer teléfono".
  3. Baieztatu informazio guztia ezabatu nahi duzula.
  4. Minutu batzuren ondoren fabrikako balioen arabera ezarrita izango duzu telefonoa.